



PRENTSARAKO OHARRA
18/05/11

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaibusen ganeko Arauz Besteko hiru Proposamen onetsi ditue aho batez

Bizkaiko Batzar Nagusietako talde politiko guztiak ados jarri dira gaur goizean, Bizkaibus zerbitzuaren funtzionamentuagaz erlazionautako Arauz Besteko hiru Proposamen aho batez onesteko. Lehenengoa, istripu posibleen aurreko segurtasuneko neurrien ganekoa izan da, bigarrena, indarkeria matxistea saihesteko “eskariaren araberako geralekuak” izenekoan ganekoa, eta hirugarrena, Aldundiko Garraio Sailaren esku dagozan autobusen erabiltzaileen Eskubideen eta Betebeharren Dekalogoazabaltzearen ingurukoa. Hiru proposamenak Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko Egoitzan gaur goizean egin dan Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordean onetsi dira, Vicente Reyes Saileko arduradun nagusia bertan zala.

Gaur berretsi dan lehenengo ekimena Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkariak aurkeztu dau, eta Bizkaibuseko autobusetan gidariak dituan puntu itsuen abisu sistemak jarteari buruzko azterlana egitearen gainekoa izan da, harrapaketak saihesteko. Proposamenak Foru Gobernua eusten daben talde bien zuzenketa-eskea jaso dau, eta proposamena aurkeztu dauen taldeak eta gainerakoek onetsi eta, azkenean, testu onegaz onartu da: “Batzar Nagusiek eskaria egiten deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, Bizkaibuseko autobusetako puntuitsuak hartuko dituan abisu sistema jartearen bideragarritasun teknikoa, bateragarritasuna eta integrazioa baloretako azterlana egin daian”.

Aho batez onetsi dan Arauz Besteko bigarren Proposamena be Talde Mistoaren ordezkariak aurkeztu dau hasieran, eta batzordeko ganerako talde guztiak gehikuntzako, zuzenketa edo osoko zuzenketa-eskeak aurkeztu ditue. Azkenean, zuzenketa-eske transakzional batek Batzordearen aldeko eretxia lortu dau. Bertan, indarkeria matxistaren eta emakumeek jasan daikiezan jazarpenen eta eraso sexualen kontra inplikau daitela eskatzen jako Aldundiko Garraio Sailari, Bizkaibusen gaueko lineatan, halan eskatu ezker autobusa geratu egingo dan “eskariaren araberako” geralekuak edo “puntu seguruak” ezarteko aukerea aztertuz.

Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkartzea daukien sei talde politikoen arteko adostasuna Arauz Besteko hirugarren Proposamenera be heldu da. Oraingo honetan Talde Popularraren ekimena izan da, eta horrek be Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen zuzenketa-eskea jaso dau, eta Bizkaibuseko erabiltzaileek euren eskubideen eta betebeharren ganean daukien ezagutzaren ingurukoa izan da. Proposamenaren jatorria, zerbitzu horretako beharginek orain denpora gitxi jasan dituen indarkeria edo irain kasuetan oinarritu da, eta aho batez onetsi dan idazketan eskaria egiten jako Garraio Sailari, “Bizkaibuseko erabiltzaileek daukiezan eskubideak eta eskatu ahal jakezan eta betebeharrak zabaltzeko eta ezagutzeko” formula onenak azertu daizan.

BILBAO BIZKAIA CARD TXARTELA

Adostasun gitxiago lortu dau Zigor Isuskiza batzordekideak Bilbao Bizkaia Card turismo txartelaren gainean Vicente Reyes Garraio Foru Diputatuari egin deutson erantzun-

eskeak. EH Bilduren ordezkariak errugbi finalak dirala eta egin dan txartel horren edizino bereziaren, Metroa, trena eta tranbia erabilteko ustez prestau izanaren eta erabilera intermodal hori Bizkaian garraio publikoa egunero erabilten daberen pertsonen ez apliketearen zergaitiaren gainean galdetu deitso Aldundiko arduradunari.

Vicente Reyesek guzurtatu egin dau Bilbao Bizkaia Card txartelak tarifa laua edo dobakotasuna daukanik garraio aldaketetan, eta, esan dauenez, aurretik ordaindu beharreko ohiko txartela baino ez da, errugbiari buruzko motiboakaz apainduta dagon arren, baina ez dau ezelango aldaketarik izan erabilteko baldintzetan edo kostuan. Ondoren egon diran erantzunetan eta kontra-erantzunetan, Isuskizak eta Reyesek Garraio Foru Sailaren lehenetsuen gainean polemizatu dabe, eta eztabaidea eguneko gai zerrendako beste puntu batzuetara be zabaldu da, EH Bilduk behin eta berrero aurkeztu gura izan dauelako bere batzordekidearen kexea, bere planteamentuari azken argumentua ezin izan deitso gehitu. Batzordearen presidentek be behin eta berrero ukatu dau, bere eretziz araudiaren kontrakoa zalako.

APARKABISAKO EKINTZAK ETA PROIEKTUAK

Gaur goizean egin dan Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordearen saioa Vicente Reyes beraren eta Javier Seoane Aparkabisako zuzendari nagusiaren agerraldiagaz osatu da, Aldundiaren esku dagon eta Bizkaiko Lurralde Historikoko ibilgailu astunentzako merkantzia eta aparkaleku zentral integralen sustapenean, prestaketan eta ustiapenean behar egiten dauen merkataritza soziedadek azken aldiagaz gauzatu dituan jarduketan eta aurreikusten dituan planen barri emoteko. Agerraldi hori Talde Mistoak eta EH Bilduk eskatu dabe batera.

Reyesek eta Seoanek soziedadearen panoramika zehaztua eskini dabe. Trapagan eta Zierbenan dituan egoitzetan, 312.000 metro karratu aparkaleku eta bulego kudeatzen ditu, Estatu osoan merkantzia arriskueterako gaituta dagozan aparkaleku bietako bat barru dala. Aparkabisako arduradun nagusiak, gastuaren murrizketan, diru-sarreraren igoeran, lantaldeari eustean eta kudeaketa gardenean oinarrituta dagon 2016-2019 kudeaketa plana azaldu dau, eta bertan, energiaren aurrezpenean izandako lorpenak azpimarratu ditu. Etorkizunari begira, Scania enpresak Trapagan dituan tailerren handitze posiblea azpimarratu dau Seoanek, eta Vicente Reyesek guzurtatu egin dau Aparkabisa, orokorrean, handitzeko azterlanik dagonik.

NOTA DE PRENSA

11/05/18

Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban por unanimidad tres proposiciones no de norma referidas al servicio Bizkaibus

Todos los grupos políticos de las Juntas Generales de Bizkaia se han puesto de acuerdo esta mañana para aprobar por unanimidad tres Proposiciones No de Norma relacionadas con el funcionamiento del servicio Bizkaibus. La primera hace referencia a medidas de seguridad frente a posibles accidentes, la segunda a las denominadas “paradas a demanda” para prevenir la violencia machista, y la tercera a la difusión de un decálogo de derechos y obligaciones de las personas que utilizan los autobuses dependientes del Departamento foral de Transportes. Las tres propuestas se han aprobado en la Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, celebrada hoy en la sede de las Juntas Generales en Bilbao con asistencia del máximo responsable del departamento, Vicente Reyes.

La primera iniciativa hoy refrendada había sido presentada por el representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, y se refería a la conveniencia de estudiar la instalación en los autocares de Bizkaibus de sistemas de alerta para cubrir los ángulos muertos para la persona que conduce, al objeto de evitar posibles atropellos. La proposición ha recibido una enmienda de los dos grupos que sustentan al Gobierno de la Diputación, que ha sido aceptada tanto por el proponente como por el resto de junteros, y ha sido finalmente aprobada con el siguiente texto: "Las Juntas Generales instan a la Diputación Foral de Bizkaia a realizar un análisis para valorar la posible viabilidad técnica, compatibilización e integración de un sistema de alerta que cubra los ángulos muertos en los sistemas de los autobuses de Bizkaibus".

La segunda proposición no de norma aprobada unánimemente ha sido también inicialmente propuesta por el representante del Grupo Mixto, y había recibido enmiendas de adición, corrección o a la totalidad de su texto por todos los demás grupos junteros. Finalmente ha logrado el apoyo de la totalidad de la Cámara con una enmienda transaccional, en cuyo texto se insta a Departamento foral de Transportes a implicarse en la lucha contra la violencia machista y contra el acoso y agresiones sexuales a mujeres durante los trayectos, estudiando la posibilidad de implantar en las líneas nocturnas de Bizkaibus paradas “a demanda” o “puntos seguros”, donde el autobús pueda detenerse si se solicita.

El consenso entre los seis grupos políticos representados en Juntas Generales de Bizkaia ha alcanzado también a una tercera Proposición No de Norma, en esta ocasión a iniciativa del Grupo Popular, y también en este caso enmendada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, sobre el conocimiento por parte de las personas usuarias de Bizkaibus de sus derechos y obligaciones. La propuesta tenía su origen en recientes casos de violencia o insultos de los que han sido objeto personal adscrito a este servicio, y en su redacción unánimemente aprobada se insta al Departamento de Transportes a analizar las mejores fórmulas “para la difusión y conocimiento, por parte de las personas usuarias de Bizkaibus, de los derechos y deberes que les asisten y son exigibles”.

TARJETA BILBAO BIZKAIAB CARD

Menos consenso ha registrado la pregunta formulada al Diputado Foral de Transportes, Vicente Reyes, por el juntero Zigor Isuskiza, referida a la tarjeta turística Bilbao Bizkaia Card. El representante de EH Bildu ha interpelado al responsable del Departamento sobre una edición especial de dicha tarjeta con motivo de las finales de rugby, su supuesta habilitación para utilizar tanto el Metro como el tren y el tranvía, y la razón por la que este uso intermodal no es igualmente aplicable a las personas que habitualmente utilizan el transporte público en Bizkaia.

Vicente Reyes ha negado que la Bilbao Bizkaia Card disponga de tarifa plana o gratuidad en los transbordos, y ha señalado que se trata simplemente de una tarjeta de prepago decorada para la ocasión con motivos referidos al rugby, pero sin ningún cambio en sus condiciones de uso o de coste. En posteriores réplicas y contrarréplicas, Isuskiza y Reyes han polemizado en torno a las prioridades del Departamento foral de Transportes, y la discusión se ha trasladado incluso a otros puntos del orden del día, ante la insistencia de EH Bildu en dejar constancia de la queja de su parlamentario por no poder añadir un argumento final a su planteamiento, que ha sido a su vez reiteradamente rechazada por el presidente de la Comisión por considerarla contraria al reglamento.

ACTUACIONES Y PROYECTOS APARKABISA

La sesión de esta mañana de la Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio se ha completado con la comparecencia del propio Vicente Reyes y del director general de Aparkabisa, Javier Seoane, para dar cuenta de las actuaciones recientes y de los proyectos y planes previstos por esta sociedad mercantil foral dedicada a la promoción, preparación y explotación de centrales integrales de mercancías y aparcamiento para vehículos pesados en el Territorio Histórico de Bizkaia. Dicha comparecencia había sido solicitada conjuntamente por el Grupo Mixto y EH Bildu.

Tanto Reyes como Seoane han ofrecido una detallada panorámica de la sociedad, que en sus dos emplazamientos de Trapagaran y Zierbena gestiona 312.000 metros cuadrados de aparcamientos y oficinas, incluyendo una de los dos únicos parkings habilitados para mercancías peligrosas existentes en todo el Estado. El máximo responsable de Aparkabisa ha expuesto el plan de gestión 2016-2019, basado en una disminución del gasto, un incremento de los ingresos, el mantenimiento de la plantilla y una gestión transparente, en la que ha subrayado los logros en materia de ahorro de energía. De cara al futuro, Seoane ha destacado la posible ampliación de los talleres de la empresa Scania en Trapagaran, mientras que Vicente Reyes ha negado que existan estudios para una posible ampliación de Aparkabisa en su conjunto.